

{ koaderno } Iker Barandiaran

# Orri horiak

Orpor usaineko egun hauetako batean lankide ohi batekin hondartzan egin dut topo eta bere irakurzaletasuna ezagututa, eskuartean dauzkan liburuez galdetu diot. Aurreikusi bezala, euskal argitaletxe batek kaleratu berri duen euskal idazle bizidun baten euskarazko lanaren berri eman dit. Ez nuen gutxiago espero, eta, gainera, primeran iruditu zait. Ez naiz ni *best seller* zalea, eta, bizkarra ematen diet, egunen batean besterik ezean horiek agertuko direla jakitun. Eta aitortu behar dut eskertzekoa dela euskal ekoizpen berrienari buruzko lehen eskuko informazioa jasotzea, babestu beharko bagenu ere, hainbeste ahazten duguna.

Horra arte ondo. Azken finean hondartzako toalla eta dutxa arteko elkarrizketa kasual bati ezin zaio zuku handirik eskatu. Eta halako batean nik etxeko apaletan irakurri gabe ditudan liburuetatik berreskuratutako “Elkartasun taupadak” erakutsi diot, Ardi Beltzak 1999an kaleratutakoa. Horra bere erantzuna: «Hori aspaldikoa da!», erdi kopetilun. Elkarrizketa ez da askoz gehiago luzatu, norberaren umeak argudio.

Azkenengoa, berriena, freskoena, pil-pilean dagoe-na lehenbailehen kontsumitu eta, batez ere, horren berri emateko joera –eta agian premia– daukagu. Eta ni ere tarteka adi egoten naiz irte-ten denari, baina ez diot inola ere bizkarra ematen iraganean sortu edo kaleratu denari; eta are eta gutxiago liburuei. Uler dezaket diskoen kasuan kantuak zuzenean ikusi eta entzuteko nahiak bultzatzea bat baino gehiago bizi eta aktibo dauden sortzaileei arreta berezia ematera. Baina liburuek oso gutxitan dute iraungitze data. Denbora falta eta aukeraketa- ren ondorioz utz ditzaket apaletan lasai, baina horrek ez du haienganako interesa txikitzen.

Hala gertatu zait orain dela hamasei urte –argitaratu zenean– eskuratu nuen “Elkartasun taupadak” liburuarekin, irakurri gabe nuena eta eskuotan dudana. Idazkera apala badu ere, hainbat lagunek modu erabat autonomoan bestelako baliabiderik gabe baina ilusio erraldoiarekin egindako lorpenak, moduak eta zergatiak azaltzen ditu. Itoitzen Aldeko Solidarioek eta beste batzuek egin zuten antzera, euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko eta Espainiar legedia bete zedin eskatzeko protesta ekin-tza sinboliko, erabat baketsu eta ikusgarriak egin zituzten; tartean *giralrilla* Sevillan ospatutako Nazioarteko

Atletismo Txapelketaren irekiera ekitaldian, Olentzero espetxeetara igotzen saiatu zenekoa edota Esteban Esteban Nieto ospitalean “bisitatu” zutenekoa. Testigantzek erakusten digute orain dela hogeitau urte gizarteratuta eta alderdien aldetik konpromiso handiagoa zuen gai batek bere horretan jarraitzen duela, gure bultzada nahikoa ez delako eta alderdiek ez dutelako babestu nahi.

Eta liburu honek balio digu ere, argitaletxeari errepa-ratuz, gogoratzeko Ardi Beltza izeneko proiektu informa-tibo bereizgarri bat existitu zela, Espainiako Estatuan pa-rekorik ez zuena eta “Egin” egunkariko *Equipo de Investigación*-eko hainbat kidek, Pepe Reik tartean, sortu zutena; eta Garzonek itxi ostean, “Kale Gorria”-k ordez-katu zuena. Proiektu hauek jaio ziren epaileek gauzatu-tako “Egin”-en itxierak bultzatuta, eta ez dago soberan gogoratzeko “Egin” egunkarian eta izen bereko irratan ar-durak izan zituztenetako batzuek urte ugari egin dituzte-la espetxean proiektu komunikatiboak bultzatzearen. Gainera, batzuek kartzelan jarraitzen dute oraindik.

Aurrera begira bai, beti! Iraganarekin eta  
nostalgiarekin itsutu ez! Baina izan  
dezagun presente pasatakoa, hortik ikasi  
eta perspektiba zabalagoa izan dezagun

Ziur nago gertaera horietatik hogeitau urte eskas pasa ba-dira ere, azken *hype*, tendentzia edo erresistentzia mugi-mendua noiz sortuko den adi daudenetako askok ez di-tuztela gure historiaren iragan hurbileko pasarte horiek ezagutuko. Aurrera begira bai, beti! Iraganarekin eta nos-talgiarekin itsutu ez! Baina izan dezagun presente pixka bat pasatakoa, hortik ere ikasi eta perspektiba zabalagoa izan dezagun.

Zertaz ari ginen? A, bai, lankide ohiaz, literaturaren garrantziaz, eta liburuek guk deskubritzeko esperoan bere baitan gordetzen duten guztiaz. Uda, gainera, ga-rai aproposa da zer garen –gatzez edo izerdiz blai-tuak–, nondik gatozen –gelditzeko parada hartu nahi izaten ez dugun egunerokotasun erotik– eta nora goa-zen –freskatzera edo erlaxatzera– jakiteko. Eta, zerga-tik ez, bada, urtean zehar ziurtasun gehiagorekin za-paltzeko, oinak jartzen ditugun hareak edo lurra apurren bat altxatzea? •